EKAINA, ERREARO EDO BAGILA

> "El comienzo del verano fue uno de los tiempos fuertes en el calendario de los maleficios y de las mises en peligro de malograrse. Un mundo denso de tensiones y vivencias subyace en el rescoldo de unas prácticas que hoy se nos antojan inoperantes y faltas de consistencia".
>
> SATUSTREGI, J. M. (1995): *Mitos y Creencias*

Karmel aldizkariaren 252. zenbakian (2005), antzinako euskaldunek abendua nola bizi zuten aztertzen nuen; hain zuzen ere, euskaldunon ohiturazko baloreen eta mundu ikuskeren ezagutza handitzeko helburuarekin.

Oraingo honetan, ekaina, *errearoa*, ereiaroa, garagarrila, garagarzaroa edo bagila aztertzen dut. Izan ere, abenduarekin batera, ekaina da euskal egutegiko hilik garrantzitsuena, hain zuzen ere, hile bi hauetan ospatzen direlako urteko egunik magikoenak: San Joan gaua eta Gabon gaua. Biak ere eguzkiaren aldaketekin loturik daude: San Joan gauean udako solstizioa ospatzen da eta Gabon gauean neguko ekinozioa. Baina hori baino gehiago dira, nire ustez, egun bi hauek euskaldunentzat: bizitza berriztatzeko une magikoak dira; urteko inflexio puntu garrantzitsuak; etorkizun hobeago baten igarobide erritoak.

Beste artikulu hartan bezala, oraingo honetan ere atsotitzen azterketan oinarritzen naiz. Izan ere, herri batek bere ibilbide historikoan sortu dituen atsotitzak aztertuz, herri horren izaera ezagutu genezake. Atsotitzen bidez, antzinatik datorkigun eta herri memorian gorde diren herrien ondare kulturalera hurbiltzen gara. Juan Mari Lekuonak zioen bezala: "Bistan da erriak erabilitako atsotitzek eta esakerek aozko literaturan duten garrantzia. Erriak berak sortu eta jasotako jakinduriazko eta literaturazko ondare aberatsa dira. Denek erabiltzen ditugun 'erran komunak' bilakatzen dira, erri mailako oiartzun luzea dakarten adierazpide landuak. Itz batetan, erri mailako artelariek, -bertsolariek, kontuesaleek, ditxolariek eta abarrek-, darabilten eskola goiena"[1].

Ez da erraza izan hemen aurkezten ditudan atsotitz guztien esanahia ezagutzea. Are gehiago, ziur nago zenbait interpretazio ez direla guztiz zuzenak. Beraz, eskertuko nizuke, irakurle, atsotitz baten azalpena ez dela egokia pentsatzen baduzu, edo interpretazioren bat hobeagotu egin daitekeela, zure iruzkin edo iritziak patxi.juaristi@ehu.es e-postara bidaliko bazenizkit. Aldez aurretik, eskerrik asko.

Kukua, San Joanetan kuku, San Pedrotan mutu

Martxoaren 25ean ospatzen da martxoko Ama Birjinaren eguna. Egun horretan etortzen da kukua Euskal Herrira, eta lau hilabetez aritzen da kantatzen euskal basoetan (*Kukua, Ama Birjina martxokoaren egunean Erromako zubian, eta handik hamabost egunerako mundu guztian.* Zavala, 1837 / *Kukuak, Ama Birjina martxokoz kuku, eta San Pedroz mutu.* Zavala, 1839 / *Kukuak esan eban, Santa Maria Martikoz ez bazetorren, bere ondrak egiteko.* Azkue, 518).

Hogei astez kantatzen aritu ostean, San Pedrotan (ekainak 29) mututzen da kukua (*Hogei astez kuku, San Pedrotan mutu.*

[1] Lekuona Juan Mari: "Erri literaturaz. Atsotitzak eta esakerak". Lekuona'tar Manuel Jaunaren omenezko idazki-bilduma. Kardaberaz bilduma.

Damaso Intza, 489 / *Ama Birjina martxokoan Erromako zubian kuku; San Pedrotan mutu.* Damaso Intza, 1717 / *Kuku: San Pedrotan mutu.* Damaso Intza, 2055 / *Andre Mari Martikoz agertu zen kuku; San Pedro bagilekoz martxau egin zaigu.* Zavala, 145 / *Kukua, San Joanetan kuku, San Pedrotan mutu.* Zavala, 1845 / *Kukuak egiten du maiatzean kuku, garagarrilean gelditzen da mutu.* 517, Azkue eta Zuhur Hitz).

Baserritarrak zein hiritarrak gustura entzuten dute kukuaren kantua martxoan; hain zuzen ere, uste dutelako kukua lehenengoz entzuterakoan sakelan dirua izanez gero, urte guztian dirua izango dutela (*Lehen aldian kukua aditzean sakelan dirurik baldin baduzu, urte aberatsa ukanen duzu.* Zuhur Hitz). Lehen zein orain, ez dira gutxi dirua poltsikoan hartu eta kukua noiz entzungo basorik baso dabiltzanak.

Kukua etorri, gosea etorri; kukua joan, gosea joan

Kukuaren kantuak norbere ekonomian eragin positiboak dituela sinistuta ere, euskaldunek badakite kukuarekin gosea datorrela euskal lurrera; alegia, kukua eta gosea estuki loturik daude euskaldunen inkontziente kolektiboan (*Kukuaren lau hilabetek, hotzak eta gosek.* Damaso Intza, 1843 / *Kukua etorri, gosea etorri; kukua joan, gosea joan.* Azkue, 515 / *Kukua etorri, gosea etorri. Kukua mututu, gosea bukatu.* Zavala, 1838 / *Garizuma berandu, udaberria berandu; kukua etorri, gosea etorri; kukua joan, gosea joan.* Azkue, 1681 / *Kukua etorri, gosea etorri: kukua joan, gosea joan.* Damaso Intza, 55 eta 172). Eta hori horrela da martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean, hau da, kukua kantari aritzen den hileetan maiz izaten delako elurra eta eguraldi hotza. Hau kukua gure artean dagoen hileetan abereek hotza eta gosea pasatzen dute. Nahiz eta, ustez, udaberrian sartuak egon, hile hauetan badaki neguko eguraldia egiten; badaki hotza, izotza eta elurra egiten, eta baldintza horietan oso arrunta da negurako gorde diren elikagai eta belarrak bukatzea, baita elikagai eta belar berriak lortzeko arazoak izatea ere.

Martxoan hotza eta elurra egiten baditu, laborariek ezingo dituzte abereak kortatik atera eta belardietara bidali. Bestalde, sabaietan negurako gorde diren belar eta lastoak bukatu egiten dira, baita negua pasatzeko gorde diren elikagaiak ere. Baserritarrak neguaren latza noiz aldenduko zain daude abereak kortetatik ateratzeko (*Sabaiak hutsak eta pentzetan izotza, martxo ídor non duk ba bihotza? Ttipiarentzat hor da sasoi bat zorrotza; primadera, urrun ezak neguaren latza!* Zuhur hitz).

Apirilean ere badaki elurra, izotza edota hotza egiten, eta horrek gosea eta nekea ekartzen die etxeko abereei. Apiril osoa elurretan badago, hau da, apirila biribila bada, abereak gosez eta hotzez hiltzen dira, baserritarrek jateko zer emanik ez dutelako (*Apirila, biribila, zerria urdandegian hotzak hila.* Azkue, 1641).

Nahiz eta uda hurbil izan, maiatzean ere baliteke neguko eguraldia izatea. Gainera, oraindik belar gutxi dago zelaietan, eta baliteke urte guztirako gorde diren belar, gari eta artoak bukatuta egotea. Maiatza erdi gosetan eta erdi hotzetan pasatzen omen zuten iraganeko euskaldunek (*Maiatzaren erdia hil zuen hotzak, bertze erdia goseak.* Azkue, 1756).

Martxoan, apirilean eta maiatzean bezala, ekainean ere izaten da gosea bazterretan. Alde batetik, oraindik ortuari gutxi dago baratzetan, eta, bestalde, baliteke negua pasatzeko baserritarrek gorde dituzten arto eta gariak bukatuta egotea. Horrek gosea eragiten du euskal baserrietan, batez ere morroi eta neskameen artean (*Bagila sei goseen bai hila.* Refranes y Sentencias, 523).

Esanak esan, kukua kantari aritzen den sasoia goseari eta hotzari loturik dago Euskal Herrian, eta jendeak kukua joateko zain dago, hain zuzen ere, horrek esan nahi duelako eguraldi hotza eta elurra aldendu egin direla eta abereentzako bazka ziurtatuak daudela.

Berezia da kukuarekin euskaldunek duten harremana: kukua entzuteko irrikitzen daude, urtean zehar dirua izateko, bai-

na gero noiz joango zain egongo dira gosearekin bukatzeko. Maitasun-gorroto harremana dago kukuarekin.

Maiatza pardo, bagila klaro orduan izango da ogi eta ardo

Laborariak kexu dira maiatza lehorra bada eta ekaina euritsua (*Ekaina bustitsu, gure nagusia kexu.* Zavala, 843 / *Ekaineko lur busti, gure aita negarti.* Zavala, 846). Izan ere, maiatzeko euriak ondo egiten dio gari eta mahats uztari, eta, aldiz, ekaineko euriak bi elikagai hauen uzta izorratzen du. Euskal laborariak pozik daude maiatza pardo bada, hau da, euritsua, eta ekaina klaro bada, hau da, eguzkitsua; hain zuzen ere, horrelako eguraldiarekin hurrengo neguan nahi haina ogi eta ardo izango dutelako eta negua lasai pasatuko dutelako (*Maiatza pardo, eta ekaina klaro.* Damaso Intza, 2467 / *Maiatza pardo, garagarzaroa klaro, orduan izain da ogi eta ardo.* Azkue, 1757 / *Maiatz iluna eta bagil argia, urte guztiko ogia.* Refranes y sentencias, 43 / *Maiatza pardo, bagila klaro.* Azkue, 1754bis / *Maiatz iluna eta ekain argia, urte guztiko ogia.* Zuhur Hitz). Eta ez bakarrik garia eta mahatsa. Ekain eguzkitsu eta beroak arto ugari ekartzen du (*Artoak tenple bat bera behar du beti: ereiten berotan, hazten berotan, jaten be berotan.* Zavala, 255).

Nahi baduzu senarrari bizia laburtu, emaiozu errearoan azak jaterat

Aza neguaren bukaerako eta udaberriaren hasierako jakia da. Neguan ereiten da aza hazia. Zehatzago esateko, San Matias egunaren (otsailak 24) inguruan, (*San Matías, erein duk aza hazia? Hik bilduren duk aza handia.* Azkue, 91 / *San Matia: erein tuk aza haziak? Hik bilduko dituk aza handiak.* Azkue, 2400 / *Kuri behera, gari-hazi; kurri gora, olo-hazi; erein ezan baratzean aza hazi.* Azkue, 2598)[2]; eta gero urtarrilean, otsailean, martxoan eta apirilean jaten da (*Enero, febrero, marzo,*

[2] Nahiz eta gaur egun San Matias maiatzaren 14an ospatzen den, iraganean otsailaren 24an ospatzen zen.

abril: azak jan eta ondo habil. Azkue, 768). Lau hilabete hauek dira aza jateko onenak, garai horretan aza orriak ondo egosten direlako.

Negua pasatzen doan heinean, aza gogortzen hasten da (*Azak eta porruak eroan ditu neguak.* Azkue, 2016). Alegia, udako aza ez da bat ere ona jateko (*Maiatzeko aza, gizona biltzeko.* Damaso Intza, 831 / *Nahi baduzu senarrari bizia laburtu, emaiozu errearoan azak jaterat.* Zavala, 2169 / *Senarra hil nahi baduzu, uzta-abuztuan aza emaiozu.* Azkue, 1286 eta 270).

Pentze txar, murritza, ekainean deusik ematen ez duena

Ekaineko eguzkiak lur umelak berotzen dituenean, pentze txarrenak ere belar ugari ematen du (*Pentze txar, murritza, ekainean deusik ematen ez duena.* Zavala, 2494 / *Pentze txarrenak ere, ekainean badakar.* Zavala, 2495). Batez ere euria egiten badu, nahiko belar izango da bazterretan (*Ekainean ortzia, lasto eta belarrez nahikoa.* Zavala, 845). Pello Zabalak dioen bezala: "Erreparatu besterik ez, belar tzarra kalpartsu zein erraz datorren, euri eta eguzki, sapatsu hasten denean" (Zabala, 229. orr.).

Martxotik maiatzeraino neke, gose eta hotz ugari pasatu dituzte baserritar zein etxeko abereek, baina gauzak aldatzen hasten dira ekainean. Abereek nahi haina belar dute zelaietan. Kukua badoa, eta berarekin baita gosea eta hotza ere.

San Medarrez euria? berrogei egunez euria (San Emeterio ekainak 8)

San Medar edo San Emeterio egunean euria egiten badu, berrogei egunetan euria izango da. Egia esan, baserritarrek ez dute nahi euririk garai honetan, eta euria egiten badu pentsatzen dute berrogei egunetan iraungo duela (*San Medarrez euria? berrogei egunez euria.* Azkue, 92 / *Semeder eguneko euria, berro-*

gei eguneko euria. Azkue, 114 / *San Medarrek euri, berrogei egunez busti.* Zuhur Hitz). Hain da txarto etorria euria garai honetan, euria egiten badu berrogei egunez izango dela pentsatzen dute.

Garai honetako euriek gari eta mahats uztak galtzen dituztela kontuan izanik (*San Medarrez euria, uztaren lauetarik bat galdia.* Zavala, 2591), nekazariak kexu agertuko dira egun honetan euria egiten badu (*San Mederrek ur izuri, jendea kexu ezarri.* Zavala, 2592). Esanak esan, nekazariek eguraldi eguzkitsua nahi dute ekainean. Hain zuzen ere, ekaineko eguzkiak eragin handia duelako ardo, arto eta gari uztarengan.

San Primo egunean urik egiten badu: berrogei egunez euria (San Primo, ekainak 9)

San Medar egunari lotuta dagoen sineskeria bera agertzen da San Primo egunean ere: baserritarrek pentsatzen dute ekainaren 9an euria egiten badu, berrogei egunetan euria izango dela (*San Primo egunean urik egiten badu: berrogei egunez euria.* Damaso Intza, 1828). Lehen esan bezala, baserritarrek ez dute ondo hartzen garai honetako euria, uztaren kaltegarri delako.

Mirakulu nahi bada, San Antoniori egin galda (San Antonio Paduakoa, ekainak 13)

San Antonio Paduakoa da mirarien santua (*Mirakulu nahi bada, San Antoniori egin galda.* Azkue, 51). Beraz, mirakuluak lortzeko zein gauza galduak bilatzeko, asko dira santu honi erregutzen diotenak (*Gauza galdua edireteko, har San Antonio ararteko.* Azkue, 26). Batez ere ospetsua da Urkiolako San Antonio, hain zuzen ere, neskalaguna edo mutil-laguna bilatzen laguntzen duelako.

Bestalde, San Antonio egunean eguraldi eguzkitsua bada, mahats uzta ona izango da (*San Antonio egun ederra, bai eta barrika guzien betetzeko segurtamena.* Zavala, 2551). Behin eta berriz esan bezala, laborariek ez dute nahi euririk ekainean.

San Xerbatxok eguzki, uzta ere hobeki (San Jerbasio, ekainak 19)

Ekaineko eguzkia eta eguraldi beroa oso garrantzitsuak dira euskal nekazarientzat; izan ere, horien arabera daude gari, arto eta mahats uztak (*San Xerbatxok eguzki, uzta ere hobeki.* Zavala, 2639). Hobe esanda, ekaineko eguraldiak garrantzi asko dauka urte guztian.

San Joan bezpera, sarna a fuera. ogia eta ardoa etxera. atso zaharra ganbelapera. neskatxa gazteak txokolate hartzera (San Joan bezpera, ekainak 23)

Hainbat ikerlarik esan duten bezala, euskal egutegian une garrantzitsu bi daude: San Joan gaua eta Gabon gaua. Biak ere eguzkiaren aldaketekin loturik daude: San Joan gauean udako ekinozioa ospatzen da eta Gabon gauean neguko solstizioa.

Bi ospakizunotan garrantzi handia du suak. Gabonetan, gabon zuzia edo gabon mokorra erretzen da etxean, eta San Joan egunaren bezperako gauean suak egiten dira etxe ondo, bide kurutz eta plazetan (*Sua! Gabonetan txapan eta San Joanetan plazan.* Zavala, 2675 / *Jondoni Joanes Batista, pitz bedi su parrasta.* Zavala, 1643 / *San Joan su, bazter guztiak mamitsu.* Zavala, 2579).

Euskaldunek sua egiten dute eguzkiaren aldaketa ospatzeko; hain zuzen ere, eguzkia delako euskaldunen munduko erregina (*Eguzki, erregina sasi gainekoa, gaur asko kontsolatu eta bihar arte doa.* Azkue, 1149). Ez da harritzekoa euskaldunek gizaki bizidun gisa hitz egitea eguzkiari (*Eguzkia joan da bere amagana, etorriko da bihar denbora ona bada.* Azkue, 1152).

San Joan bezpera magiaz beterik dago. Gau horretan neskamutilek salto egiten dute suaren gainean. Eta salto eginaz batera, sarna aldentzea eskatzen dute, baita harriak ogi bihurtzea eta ura ardo (*San Joan bezpera, sarna a fuera. Ogia eta ardoa etxera. Atso zarra ganbelapera. Neskatxa gazteak txokolate*

hartzera. Damaso Intza, 997). Eta hori horrela da San Joan bezperako suak botere asko duelako: "El poder que se atribuye a la hoguera es, prácticamente, infinito, con una relación curiosa de aspiraciones que descubre la problemática del pueblo tradicional. Se pide de todo. Por supuesto, el remedio contra la sarna -sarna fuera- encabeza la lista. Las cosechas de máiz y trigo, compiten con las de pan y vino -ogi t´ardo Nafarrora-, entre las preferencias de la Navarra septentrional y la zona de Pamplona (Satrustegi, 1995:57)

Suaren gainean salto egin ostean, txokolatea hartzeko ohitura dago Euskal Herriko toki askotan: "Estaba muy generalizado en Navarra la costumbre de celebrar la sanjuanada, que consistía en bañarse en un río o en la fuente a las doce de la noche. Los chicos y chicas de Desojo solían ir a sanjuanarse en el río, más bien riachuelo, que está a un par de km. del pueblo. A continuación, una señora de la familia de mis informantes les preparaba allí mismo una chocolatada. Desconocen el significado del rito, pero atestiguan que nunca llegó a resfriarse nadie por meterse a aquellas horas dentro del agua. (Satustregi, 1995:46)

Eguzkiak San Joanetan dantza (San Joan, ekainak 24)

San Joan egunean eguzkia dantzan ateratzen omen da (*Eguzkiak San Joanetan dantza.* Zavala, 831). Satrustegik dioen bezala "Los pastores de Urbasa refieren otra experiencia que mis comunicantes dicen haberla constatado muchas veces. Se solían reunir en el término llamado Ixipunta, para contemplar el espectáculo de la salida del Sol, saltando en la mañana de San Juan. Abrigan la convicción de que efectivamente se agitaba en el horizonte.

También en Lekeitio queda un vestigio de esta creencia. Para que se levantasen temprano los niños en la mañana de San Juan, les decían que fuesen a ver la salida del Sol porque ese día salía bailando" (Satrustegi, 1995:45).

Sineskera hauei lotuta, kontuan hartu behar da San Joan goizeko ihintzak propietate bereziak dituela. Besteak beste, San Joan eguneko ihintzak edertasuna ziurtatzen du eta era askotako gaitzak kentzen (*San Joan goizeko ihintzak, kentzen ditu gaitzak.* Zavala, 2565).

Era berean, San Joan eguna barikua denean elikagai zein abereentzako urte txarra izango dela pentsatzen da (*San Joan eta barikua, saldu idi zuria eta ekarri artoa.* Zavala, 2573). Atsotitz honekin arto urte txarra esan nahi da, ondorioz, idia zaldu beharko du baserritarrak artoa etxera ekartzeko.

Begiratzen den ikuspuntutik begiratzen dela, San Joan bezpera sineskera, magia eta ametsez beterik dago.

San Joan eguna, urtean den egunik luzeena (ekainak 24)

Urteko egunik laburrena Santa Luzia eguna da, eta luzeena San Joan eguna (*San Joan eguna, urtean den egunik luzeena.* Damaso Intza, 82 / *Egunik luzeena, San Joanena; gaurik luzeena, Santa Luziena.* 49-Eusko Folklore, 8 eta Zavala, 817).

San Luzia egunean argitu gabe iluntzen du (*Santa Luzia eguna, argia gabe iluna.* Azkue, 107 eta 252), eta apurka-apurka, eguna hazten joaten da, San Joan egunera arte.

Hemengo udara, San Joanetik San Pedrotara.

Euskaldunentzat uda San Joanetan hasten da eta San Simon eta San Juda egunean (urriak 28) bukatzen (***San Simon eta Juda negua heldu da.*** **Garibay, 16)**[3]. Gutxi gora behera lau hile irauten du udak Euskal Herrian.

Hala eta guztiz ere, ez dira gutxi pentsatzen dutenak benetako uda ekainaren 24an hasten dela, hau da, San Joan egunean, eta San Pedro egunean bukatzen dela, hau da, Ekainaren 29an (*He-*

[3] Garibay-k dioen bezala: "Porque ya en fin de octubre se acerca el invierno y en 20 del mes es la fiesta de los santos Apostoles Simon y Judas".

mengo udara, San Joanetik San Pedrotara. Zavala, 902). Eguzki eta hondartza zaleentzat Euskal Herriko uda oso laburra da. Horrela, bada, ez da harritzekoa batzuk urte guztian sua egiteko aholkatzea (*Uda eta negu egizu ogi eta su.* 1596ko esaerak, 304).

Jon done Joneren euriak ogia itotzen eta ardoa urtzen (San Joan, Ekainak 24)

San Joan egunean ere nekazariek ez dute euririk nahi; izan ere, ekaineko euria oso kaltegarria da gari eta mahats uztentzako (*Jon Done Joneren euriak ogia itotzen eta ardoa urtzen.* Azkue, 42 / *San Joanetako euriak kentzen du ogia eta ez du ematen ardoa.* Azkue, 78 / *Jondone Joaneko euria, ogien galgarria.* Azkue, 1640 / *Jondoni Joneren euriak arnoa txikitzen eta ogirik ez ematen.* Zavala, 1645 / *Doneaneko euria garien galgarria.* Refranes y Sentencias, 254 eta 280 / *Jondone Joaneko euria, ogien galgarria.* Zavala, 1640). Are gehiago, euri gutxik (sagu baten pixa hainakoak) udazkenean hartzen diren gaztainak galdu egiten ditu (*Jondoni Jonietan, gaztainek ez lukete busti behar sagu baten pixarekin ere.* Zavala, 1646). Honela, San Joanetan eulirik ez badago, eta hau euria egin duenaren seinale da ia gehienetan, ez da garirik izango eta, ondorioz, ezta ogirik ere (*San Joan euli gabe, urtea ogi gabe.* Azkue, 77).

Honenbestez, San Joan egunean euria egiten duenean, San Juan Larraka esaten zaio; hain zuzen ere, egun honetako euriek oinaze eta nekea ekartzen dutelako (*San Juan larraka, urte guziko marraka.* Damaso Intza, 1341). Damaso Intzak dioen bezala: "San Juan larraka esaten da San Juanetan eguraldi txarra dagonean, illun, otz samar, ez euri ta ez ateri, gari asko oraindik burutu gabe, kanpoko guzia oso atzeratua; olako urtetan izango da jende artean marraka, negarra, estuasunak".

Laborariek eguraldi beroa eta eguzkitsua nahi dute ekainean. Izan ere, era horretako denborak nahi beste gari, lasto eta belar ekartzen du (*Jondoni Joane bero, lastoz eta belarrez bazterrak oro.* Zuhur hitz).

San Joan, artoa eta ogia kanpoan

San Markos egunaren inguruan ereiten da artoa, hau da, apirilaren 25aren inguruan (*San Mark, artorik baduk, lurrerat emak.* Azkue, 82); garia, aldiz, azaroan (*Hosto irlete, arto ereite; hosto erortze, gari ereite.* Azkue, 2771). Biak ala biak, oinarrizko elikagaiak dira euskaldunentzat (*Gariak esan eban: ni lako belarrik ez da. Artoak erantzun eutsan: ni nazan lekuan goserik ez da.* Azkue, 2409). Egia esan, gari eta arto asko duenak arazorik gabe pasatu ahal izango du urtea.

Garai desberdinean ereinda ere, biak daude kanpoan ekainean (*San Joan, artoa eta ogia kanpoan.* Azkue, 74); hau da, arto landarea zein gari landarea hazita egon behar dira ekainerako.

Garia biltzeko prest dago uztailaren azkenetan, hau da, madalenetan (*Madalenetan intxaurra betea, mahats-aleak kolorea hartuak eta garia itxia.* Zavala, 1994).

Artoak denbora gehiago beharko du. Izan ere, artoa urrian biltzen da (*Urrian artoak burutzen eta ainarak buztantzen.* Zavala, 2858).

Ona izateko, artoak belea, zozoa edo oiloa tapatu behar du San Joanetan eta zezena Santioagoetan (*San Pedrotan belea tapatzen bazuen, arto ona.* Zavala, 2602 / *Artoak, ona izango bada, San Joanetan belea tapatu behar du, eta Santioetan Zezena.* Zavala, 253 / *San Joanetan, artoak belea tapatu behar eta Santioetan zezena.* Zuhur Hitz / *San Joanetan, artoak belea tapatu behar dik.* Damaso Intza, 1792 / *San Joanetan belea tapatu, handik aurrera bidea libre.* Zavala, 2575 / *Artoak San Joanetarako zozoa estali behar du, eta San Pedrotarako belea.* Zavala, 254 / *Artoa, Donianetan zozo; San Pedrotan bela Zavala,* 252 / *Arto-landareak San Joanetan zozoa, eta San Pedrotan oiloa estaltzen baditu, artoa izango da.* Zavala, 256 / *Jondoni Joanez, artoa, gorde ezak oiloa; Jondoni Petriz, aldiz, xerria!* Zavala, 1644 / *San Pedrotan belea tapatzen badu, arto ona.* Zavala, 2602).

Sagarrak, aldiz, ale batzuk ikusi behar zaizkio San Joanetan (*San Joanetan artoak belea tapatzen badu eta sagarrari hiru ale ikusten bazaizkio, urte artan nahiko arto sagar izango da.* Zavala, 2574 / *San Joanetan, lau sagar ikusi ezkero, nahikoa duk.* Damaso Intza, 1793 / *San Joanetan sagar penpitik ikusten bada, bada nahikoa.* Zavala, 2576). Egia esan, abenduan euri lanbroa badago (*Abendu-laino lanbrotsuak sagar asko ekartzen du.* Zavala, 15) eta martxoan haize asko sagar asko izango da (*Martxoan haize, sagardian lore. Zuhur Hitz / Martxo haizetsua, urte sagartsua.* Zavala 2067).

San Pedro Beronan eguzki bada, San Pedroak arte euririk ez (Ekainak 29)

San Pedro Beronakoaren egunean (apirilak 29) eguzkia bada, ekaineko San Pedroak arte ez da euririk izango (*San Pedro Beronan eguzki bada, San Pedroak arte euririk ez.* Zavala, 2600).

Ekainean mututzen da kukua. Ekainaren 24an, hau da, San Joan egunean oraindik ere kukua kantari badabil ere, San Pedro egunean, hau da, ekainaren 29an mututzen da (1845.- *Kukua, San Joanetan kuku, San Pedrotan mutu.* Zavala / 489.- *Ogei astez kuku, San Pedrotan mutu.* Damaso Intza / 2055.- *Kuku: San Pedrotan mutu.* Damaso Intza). Udaberri osoan kukuka ibili ostean, egun batetik bestera mututzen da kukua.

Bestalde, eta lehen ikusi bezala, laborariek ez dute nahi euririk San Pedro egunean; izan ere, garai honetako euria txarra da era nekazal produktuentzat. Zentzu honetan, euri gutxi badago, hau da, katu pixa hainakoa gaztaina izango da (*San Pedrotan katu pixa hainbat euri baldin bada, gaztaina izango da.* Damaso Intza, 1343). Aldiz, euria egiten badu, oinaze eta nekerik ez da faltako etxaldeetan (*San Pedro egunean euri egiten zuenean, negar egiten zuen Labaiengo andreak.* Damaso Intza, 1794). Azkenik, aipatzekoa da San Pedro egunez toki askotan izaten direla jaiak, eta ardoz bustitako bazkari, afari eta ospaki-

zun ugari egiten direla (*San Pedro, gizonak ardoa edateko.* Zavala, 2601). Pello Zabalak dioen bezala (2000:258): "Hainbat festa eta firinfaran egiteko egunak izanik, San Pedro, gizonak ardoa edateko ipintzen zuten apuntean zenbait paraje kostaldekotan".

Honela, bada, udaren adierazle diren Ama Birjina abuztukoa eta San Juan eta San Pedro egunak ongi etorriak eta, aldiz, neguaren adierazle den Ama Birjina urriko ez etortzea nahiko da (*Ama Birjina abuztuko, urtean bi aldiz balitzake! Ama Birjina urriko, inoiz ez al duk etorriko!.* Damaso Intza, 1457). Neguarekin, izan ere, laster hasiko dira urritasun eta hotzak (*San Joan eta San Pedro, astero balego! Eta Ama Birjina urriko? Inoiz ez al duk etorriko!.* Damaso Intza, 2244).

San Pedro kuku, San Martzialez mutu (Ekainak 30)

Kukua martxotik ekainera aritzen da kantatzen, eta San Pedrotan mututzen da (*Hogei astez kuku, San Pedrotan mutu.* Damaso Intza, 489). Batzuentzat, San Pedro egunean oraindik ere entzun daiteke kukuaren kantua, baina biharamunean, hau da, San Martzial egunez, mututzen da (*San Pedro kuku, San Martzialez mutu.* Azkue, 2603). Irungo danbor hotsen artean joaten da Euskal Herritik kukua.

Udaberriko txoria da kukua eta, beraz, udarekin isiltzen da. Antonio Zavalak dioen bezala: "Kukuak kantu hots batian jarduten dabe eta halako batez, egun batetik bestera, mututu. San Pedro egunian, kantuan; eta hurrengo egunian, San Martzialez, mutututa". Baliteke zer jan ez duelako alde egitea kukuak (*Kuku-sagarra gogortzen denean, kukuak jan ezin duelako ibes egiten du.* Azkue; 519).

BIBLIOGRAFIA

- Azkue, R. M. (1989): *Euskal Herriaren Yakintza, Literatura Popular del País Vasco III Proverbios, Modismos, Lenguaje Infantil, Trabalenguas, Sobrenombres, Acertijos.* Euskaltzaindia & Espasa Calpe, Madrid, (Tercera Edición).
- Barandiaran: *Eusko Folklore.*
- Etxebarria, J.M. (2003): *Euskal urtea ohituraz betea.* Ibaizabal.
- Intza, D. (1974): *Naparroa-ko Euskal-Esaera Zarrak.* Institución Principe de Viana.
- Laka, J.L., Alkat, E., Mihura, F., Etxeandi, I. eta Lekuona, M. (1984): *Zahar hitz, zuhur hitz.* Bertsularien Lagunak Elkartea.
- Larresoro (1971): *Atsotitzak eta Neurtitzak.* Editorial Herri-Gogoa, Donostia.
- Lekuona Juan Mari: "Erri literaturaz. Atsotitzak eta esakerak". *Lekuona'tar Manuel Jaunaren omenezko idazki-bilduma.* Kardaberaz bilduma.
- Satustregi, J.M. (1995): *Mitos y Creencias. Orain, 5. edizioa.*
- Urquijo, J.: "Los Refranes y Sentencias de 1596". *RIEV V, VI, VII, VIII, XIX, XX, XXI, XXII, XXIII, XXIV.*
- Zabala, P. (2000): *Naturaren mintzoa. Egunez egun, sasoien gurpilean.* Alberdania, Irán.
- Zavala, A (1985): *Esaera Zaarren Bilduma Berria I eta II.* Auspoa, Tolosa.

Patxi Juaristi